

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 45/2017 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, aldatzen duena 14/2016 Dekretua, otsailaren 9koa, Nekazaritza Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zuen, eta Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 19ko 53/2016 Foru Dekretuak aldatu zuen.

Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta gobernu onarenak, bere bigarren xedapen gehigarriko 2. puntuari xedatzen du sailen egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuek zehaztuko dutela zein administrazio unitatek hartuko duten foru arau honetan ezarritako eginkizunen ardura.

Nekazaritza Sailak proposatu du Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua izatea 1/2017 Foru Arauan ezarritako eginkizunak betetzen dituen unitatea. Horretarako, 14/2016 Dekretua aldatu behar da, 6. eta 13. artikuluei idatz zati berri bana erantsiz.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 14/2016 Dekretuaren 6. artikuluari idatz zati berri bat eranstea, 7.a, lehengo 7. 9. eginkizunen aurretik, zeinak 8. 10. bihurtzen diren. Honela egongo da idatzita artikulua hori:

“6. artikulua. Administrazio unitateetako buruen eginkizun orokorrak

7. Ahalik eta lankidetzaz handiena ematea otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauarekin, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta gobernu onarenarekin, loturiko eginkizunak bere gain hartzen dituen administrazio unitateari.

8. Foru Aldundiaren arautegi organikoetan eta erabakietan berari esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak.

9. Zerbitziburuen eginkizunak honakoak dira: azterlanak, txostenak, aholkularitza, proposamenak, programen kudeaketa eta jarduerak gauzatzea bere eskumenari egotzitako alorretan, Arautegi Organikoetako eta foru dekretu honetako aurreikuspenen arabera.

10. Atalburuen eginkizunak dira bakoitzaren unitate organoari dagozkion gaietan azterlan, txosten, kudeatze, aholkatze eta proposamenak egitea, eta hala behar izanez gero espedienteak bideratu eta izapidetzea. Zerbitzuburu bakoitzak agintzen dizkien gainerako eginkizunak ere bete behar dituzte.

Administrazio unitateen arduradunak kanpoan egon edo aldi baterako eragozpenik edukiz gero, kasu bakoitzean zuzendaritzaren arduradunak zehazten duen pertsonak beteko ditu haien eginkizunak. Espresuki zehaztu ezean, dagokion nagusi hierarkikoak beteko ditu.”

Bigarrena. 14/2016 Dekretuaren 13. artikuluari idatz zati berri bat eranstea, “r” letrarekin, lehengo “r” eginkizunaren aurretik, zeina “s” bihurtzen den. Honela egongo da idatzita artikulua hori:

“13. artikulua. Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua

r. Politika publikoen ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea kudeatzea bere zuzendaritzaren ardurako gaietan, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta gobernu onarenak, aurreikusitakoaren arabera.

s. Nekazaritza Zuzendaritzak haren gain jartzen duen beste edozein jarduera.”

Hirugarrena. Dekretuaren gainerakoa eta aldaketa bere horretan uztea.

Laugarrena. Dekretu honek, onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abuztuaren 22a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritzako foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE